

III. ATALA: DIGESTIO APARATUKO FARMAKOLOGIA

13. DIGESTIO APARATUA

- Ultzera peptidikoa

Farmakoa	Taldea	Ekintza mekanismoa	Eragin biologikoak (farmakologikoa + desiragaitzak)
Zimetidina, Ranitidina, Famotidina, Nizatidina	Jariapen azidoaren inhibitzaileak, H ₂ antihistaminikoak	H ₂ hartzailearen antagonista	Jariaketa azidoa murriztu. ED: urdail hestekoak, zefaleak, tolerantzia (kronikoan), errebote hiperjariaketa (utzitakoan), zitokromo P450-ren inhibizioa
Omeprazol, Lansoprazol, Esomeprazol, Pantoprazol, Rabeprazol	Protoi ponparen inhibitzaileak	K ⁺ /H ⁺ ATPasaren inhibizio itzulezina	Jariaketa azidoa murriztu. ED: Urdail hestekoak, zefaleak, hepatitis larriak, hipergastrinemia (kronikoan), errebote erantzunak, minbiziak
Sodio bikarbonatoa, Kaltzio karbonatoa	Jariapen azidoaren neutralizatzaileak, Antiazido xurgagarriak	Inespezifikoa, basikoak dira	Jariapen azidoa neutralizatu. ED: Likidoen erretentzioa, hiperkaltzemia, alkalosi metabolikoa
Magnesio-hidroxidoa, Aluminio-hidroxidoa, Magaldratoa, Amalgatoa	Jariapen azidoaren neutralizatzaileak, Antiazido ez- xurgagarriak		Jariapen azidoa neutralizatu. ED: Beherakoak, idorreria, hipofosfatemia (ez dute eragin sistemikorik). Elkarrekin idorreria eta beherakoa saihestu
Sukralfatoa	Urdaileko mukosaren babesleak	Zelula epitelialen proteinei lotu gel likatsua eratuz	Mukosa babestu. ED: Idorreria, aho lehortasuna, elkarrekintzak
Bismuto gatz koloidala	Urdaileko mukosaren babesleak	PGE ₂ sintesi lokala estimulatu, bikarbonato eta mukiaren jariapena estimulatu. <i>H. pilory</i> hazkuntza inhibitu	Mukosa babestu. ED: Mihi eta gorozkiak belztu, goragaleak, okadak
Misoprostola	Urdaileko mukosaren	PGE ₁ -en analogo sintetikoa,	Mukosa babestu. ED: Goragaleak, beherakoak,

	babesleak	muki eta bikarbonatoaren jariapena bultzatu, azido jariaketa gutxitu, odol fluxua handitu	sabeleko mina, umetokia uzkurtu *Haurdunaldian abortiboa
Dizikloberina	Antikolinergikoa	M3 hartzailen antagonista, zelula parietaletan	Jariaketa azidoa murriztu. ED: Xerostomia, ikusmen lausotua, arritmia, gernu erretentzioa

14. DIGESTIO APARATUA

- Okadak

Farmakoa	Taldea	Ekintza mekanismoa	Eragin biologikoak (farmakologikoa + desiragaitzak)
Eskopolamina	Antagonista muskarinikoak	Antagonista muskariniko lehiakor eta ez-selektiboak. Nukleo vestibularrean eta gorakoan zentruan, eragin periferiko eta zentrala.	Zinetosiaren prebentzioa eta estimulu gastrikoaren ondorengo okadan ekidin. ED: Antikolinergikoak, lasaigarria
Difenhidramina, Dimenhidrinatoa, Prometazina	H1 antihistaminikoak	H1 hartzailen alderantzizko agonistak. Ekintza periferiko eta zentrala, gune bakartian eta vestibularrean eragin.	Zinetosiaren prebentzioa eta haurdunaldian (larriak). ED: Sedazioa (loezinean erabilgarri), umeetan urduritasuna, antikolinergikoa
Ondasetron, Granisetron, Tropisetron	5HT3 antagonista serotonergikoak	5HT3 hartzailaren antagonista, kimiohartzailak dituen gunean, gune bakartian eta NS enterikoan	Antineoplasiko eta beste farmakoen gorakoen aurka eta ebakuntza ondoren. ED: Zefaleak, idorreria
Metoklopramida, Kleboprida	D2 antagonista dopaminergikoak	D2 antagonista, 5HT3 antagonista (nerbio bagoan eta NSZn bukaeran), 5HT4 agonista heste lodian. Eragin zentrala eta periferikoa	Hestean eragin prozinetikoa, heste lodiko asalduren okaden aurka, haurdunaldian, ebakuntza ostean, migrainan, farmako ez zitotokikoen okadetan. ED: Sedazioa, beherakoa, mugimendu extrapiramidalak
Donperidona	D2 antagonista dopaminergikoak	D2 hartzailen antagonista selektiboa kimiohartzailen gunean (HHE ez zeharkatu)	Tratamendu zitotoxikoa edo heste lodiko asalduren gorakoa. ED: Xerostomia, logura, buruko mina
Nabilona, Dronabilona	Kannabinoideoak	CB1 agonista sintetikoa, kimiohartzailen gunean	Antineoplasikoen gorakoan. ED: Logura, jarrerazko

			hipotentsioa, xerostomia, urduritasuna, takikardia, paranoia
Aprepitant, Fosaprepitant	NK1 hartzailen antagonistak	NK1 hartzailen blokeoa, kimiohartzailen gunean eta gorakoen gunean	Antineoplasikoek eragindako gorakoa. ED: Logura, jarrerazko hipotentsioa, xerostomia, urduritasuna, takikardia, paranoia

- Beherakoa

Farmakoa	Taldea	Ekintza mekanismoa	Eragin biologikoak (farmakologikoa + desiragaitzak)
Loperamida, Difenoxilatoa	Heste mugikortasun inhibitzaileak, Opioideak	μ hartzaille opioideen agonista osoak periferian (Ez HHE zeharkatu)	Mugimendu peristaltikoak gutxitu, hestearen tonua handituz
Dizikloberina	Heste mugikortasun inhibitzaileak, Hartzaille muskarinikoen antagonistak	Antimuskarinikoa	Eragin espasmolitikoa, muskulu leunen erlaxazioa. ED: eragin antimuskarinikoak

- Idorria

Farmakoa	Taldea	Ekintza mekanismoa	Eragin biologikoak (farmakologikoa + desiragaitzak)
			LIBRAGARRIEN ED: Menpekotasuna, hesteko tonu muskularraren murrizpena (erabilera kronikoan), ur eta elektrolitoen galtzea, beherakoak, gorakoak, kolitis espastikoa
Zelulosa duten farmakoak	Farmako libragarriak. Boloaren masa handitzaileak	Muzilago hidrofilikek ura xurgatzen dute, gorozkien bolumena eta kanporatzeko erreflexua handituz	Tratamendu kronikoan.
Magnesio/Sodio gatzak,	Farmako libragarriak.	Ososi efektuaren ondorioz ura jariatzea,	

Laktulosa	Libragarri osmotikoak	gorozkiak bigunduz kanporatzea eta mugikortasuna errazteko	
Eratonri atrakionikoak, Bisakodiloa, Pikosulfatoa	Farmako libragarriak. Libragarri estimularriak	Na ⁺ /K ⁺ ATPasaren inhibizioa, ura, Ca, Na, Cl birxurgapena murriztuz, K jariatuz eta barneko presioa handituz eta uhin propulsaileak areagotzea	
Glizerina, Dokusato sodikoa	Farmako libragarriak. Gorotz lubrifikaileak	Gorozkiak lubrifikatu eta bigundu	Uzki bidez ematen dira
Metoklopramida	Farmako prozinetikoak	D2 antagonista eta 5HT4 agonista	Heste lodian eragin prozinetikoa, azetilkolina askapena eraginez, eta muskulu leunean eragin, bizkortzea handituz
Betnekola	Farmako prozinetikoak.	Agonista muskarinikoa	
Neostigmina	Farmako prozinetikoak. Sistema kolinergikoaren estimulaileak	Antikolinesterasikoak	

- Kolelitiasia

Farmakoa	Taldea	Ekintza mekanismoa	Eragin biologikoak (farmakologikoa + desiragaitzak)
Azido ursodesoxikolikoa	Kolelitiasiaaren tratamendua	HMG-CoA inhibitu, Kolesterol-7 α hidroxilasaren aktibitatea handitu (behazun gatzaren sintesia handitu)	Kolesterolaren jariaketa murriztu, disolbagarritasuna aldatu, kolesterolaren sintesia murriztu, kolesterolaren xurgapena murriztu (behazun gatzaren sintesiagatik)
Kenodesoxikolikoa	Kolelitiasiaaren tratamendua	HMG-CoA inhibitu	Kolesterolaren jariaketa murriztu, disolbagarritasuna aldatu, kolesterolaren sintesia murriztu